

	Espedientea: / Expediente:	Deialdi bidezko diru-laguntzak. 15000tik gora 2024WDDH0001
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	000000 -
	Dekretu-zk.: / Nº Decreto:	558/2024
	Titularra: / Titular:	IBARRATIK MISIO TALDEA
	Ordezkaria: / Representante:	MIGUEL MARIA AGUIRRE TABERNA
	Gaia: / Asunto:	GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN LANKIDETZA PROIEKTUAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK

558/2024 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik 2024ko maiatzaren 5ean irekitako 20234DDH0001 espedientea.

Kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko maiatzaren 13an ospaturiko bilkuran, Ibarran Gizarte Politika, Politika Feminista eta Aniztasuna arloan, 2024 urterako dirulaguntzak emateko, Ibarako udalak, LANKIDETZA PROIEKTUAK GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETARAKO dirulaguntza deialdia eta oinarriak onartu zirela.

Kontuan izanik 2024ko ekainaren 13ko 114. GAOn Ibarako Gizarte Politikak, Politika feminista eta Aniztasun departamentuko diru laguntzen oinarri orokorrak publikatu zirela. Deialdi honen bidez, bestek beste, ondorengo lerroari dagozkion diru-laguntzak bideratuaz:
Deialdi honen bidez, diru-laguntzak emateko zenbatekoak honakoak dira:

- 1. 19.000 eurokoa, 1.07.231.00.481.00 2024 partidaren kargatuko dena (l eranskinean arautua)
Lankidetza Proiektuak garapen bidean diren herrialdeetarako.

Araudi orokorreko 11. Artikuluak honela dio:

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako eskuduna Gizarte politikak, Politika feminista, Aniztasuna departamentu burua izango da.

Aurten, “Ibarratik Misio Taldea” GKren eskaera bakarra izan da.

Ibarratik misio taldeak, udal araudiak exijitzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu, .

Kontuan izanik dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea amaituta, eskaera bakarra aurkeztu dela:

IBARRATIK MISIO TALDEA	G208886867
------------------------	------------

LANKIDETZA PROIEKTUAK GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAN 2022WDDH0001

Ibarratik misio taldeak, udal araudiak behartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu, “”.

Ibarratik Misio Taldeak, bi proiektu aurkeztu ditu:

- INDIA: Ahwako Deep Darshan Eskola 1975 urtetik karitateko Vewdruna Karmeldar Ahizpek zuzentzen duten hezkuntza-erakundea da. Ahwa herria Dang barrutiaren egoitza Gujarat estatuan, Indiako mendebaldean. Dang-en talde tribal anitzak dira. Horien artean Bhil, Konkani, Varli, Kotwaliya, Kathodi eta Gamit dira. Beraien ama hizkuntzan eskola bat irekitzeko gonbitea jaso zuten, karmeldarrak. Proiektu honen helburua eskola horretako eraikuntza berriaren lanak amaitzea eta barne hornidura egitea da. Proiektua igazkoaren jarraipena da eta 43.554,27€ko aurrekontua dauka. Ibarako udalari 17.000 euroko diru eskaera egiten da.

- **HONDURAS:** “Pobrezia larrian dauden familientzat oinarrizko osasuna bermatzeko eraikuntzak: letrinak, ikuztegiak eta dutxak eta suntsitutako etxea eraiki”.. Proiektu hau 2018an egindako jarraipena da, egun, eta osasun egoera kontuan hartuta, premiazkoa da hasitakoari jarraipena emateko. Proiektua, Teguzigalpako auzoa den Aldea Suyapan kokatuta dago, SINAI sektorean. Pobrezia larrian bizi diren hainbat familiari letrinak eta ikuztegia hornitu, eguneroko osasun mailako bizi kalitatea hobetu nahian. Hortik letrinak , ikuztegiak eta dutxak eraikitze proiektua. Aurten bi etxeen birgaitzae lanake ta bi etxe berri eraikiko dira. Proiektua, igazkoaren jarraipena da eta 4.500 euroko aurrekontua dauka.

Eskaera ikusi eta aztertu egin da. Orohar hartuta bi proiektuok 66 puntu lortu dituzte balorazio irizpideak aplikatuz. Beraz, honako diru kopurua ematea proposatzen da:

Kontuan izanik gizarte langileak eginiko txostena eta ,2024ko irailaren 17an bilduriko balorazio batzordeak aurkeztu diren dirulaguntza eskaeraren balorazioa egin duela, eta dirulaguntza jasotzeko eskatzailea zein dirulaguntzaren zenbateko zehatza proposatzen duela

Kontuan izanik, 2024ko apirilaren 19ko GAOko 76. Zenbakian argitaraturik dagoen 2024-2027 urte bitarterako Ibarako Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraiki egindako deialdia dela

Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateraginen 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa,

EBAZTEN DU:

LEHENA: Lankidetzak proiektuak garapen bidean dauden herrialdeetarako lerroari dagokion 19.000€tako dirulaguntza, ondorengo elkarteari ematea.

IBARRATIK MISIO TALDEA	G208886867
------------------------	------------

BIGARRENA: Ordainketa bi zatitan egingo da. Hasieran kopuru honen %75a eta justifikazioa aurkeztu ondoren gainontzeko %25a.

Udal aurrekontu orokorretako 1.07.231.00.481.00 2024 partidatik egingo da, elkarteak emandako ondorengo kontu zenbakian: 2095 5043 97 1062974919

HIRUGARRENA: erabaki honen berri interesdunei ematea.

LAUGARRENA: erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea, eta hurrengo udalbatzan jakinarazi.

Ibarra, 2024ko irailaren 24an

ALKATEA

Igor Zapirain Lizarribar